

2022ko azaroaren 4a, ostirala

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4719

1869/2022 EBAZPENA, urriaren 4koa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Roberto Abad García jauna kendu egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Zuzendariorde kargutik.

1267/2017 Ebazpenaren bidez Roberto Abad García jauna izendatu zen Erizaintzako zuzendariorde Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESlan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Roberto Abad García jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESlko Erizaintzako zuzendariorde kargutik kentzea, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko urriaren 16ko lanaldia amaitzen denetik izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Bilbo-Basurtuko ESlari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2022ko urriaren 4a.

Bilbo-Basurtuko ESlko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.